



LEHENDAKARITZA

*Azterlan eta Lege Araubide
Zuzendaritza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea*

PRESIDENCIA

*Dirección de Estudios y
Régimen Jurídico
Gabinete de Prospección Sociológica*

IKUSKERAK - 1

EAEKO EMAKUME ETA GIZONEN IRITZIEN ARTEKO ALDEAK
DIFERENCIAS DE OPINIÓN ENTRE MUJERES Y HOMBRES DE LA CAPV

2007ko abendua
Diciembre 2007

http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos

Aurkibidea / Índice

Sarrera / Introducción.....	1
Laburpena / Síntesis.....	3
1 – Zoriontasuna eta bizitzarekiko lehentasunak / <i>Felicidad y prioridades vitales</i>	5
- Zoriontasuna lortzeko gauzarik garrantzitsuenak / <i>Cosas más importantes para conseguir la felicidad</i>	6
- Zoriontasunerako oztopo nagusiak / <i>Principales obstáculos a la felicidad</i>	6
2 – Erlijioa / <i>Religión</i>	7
- Erlijioaren garrantzia / <i>Importancia de la religión</i>	8
- Norberaren definizioa erlijioarekiko / <i>Autodefinition religiosa</i>	8
- Praktika erlijiosoa / <i>Práctica religiosa</i>	9
- Elizarekiko konfiantza / <i>Confianza en la Iglesia</i>	9
3 – Sexualitatea / <i>Sexualidad</i>	11
- Zerekin lotzen da sexualitatea / <i>Con qué se relaciona la sexualidad</i>	12
- Sexualitatearen garrantzia / <i>Importancia de la sexualidad</i>	12
- Maitasuna eta sexua / <i>Amor y sexo</i>	13
- Sexualitateari buruzko kezak / <i>Preocupaciones en torno a la sexualidad</i>	13
- Harreman sexualen maiztasunarekiko poztasuna / <i>Satisfacción con la frecuencia de relaciones sexuales</i>	14
4 – Itxura fisikoa / <i>Aspecto físico</i>	15
- Itxura fisikoari eta pisuari buruzko ardurak / <i>Preocupación por el aspecto físico y el peso</i>	16
- Norbera pisatzeko maiztasuna / <i>Frecuencia de pesarse</i>	16
- Pisua zaintzea / <i>Control del peso</i>	17
- Jateko ohiturak / <i>Costumbres alimenticias</i>	17
5 – Familia / <i>Familia</i>	19
- Etxeko lanen banaketa / <i>Reparto de tareas en el hogar</i>	20
- Seme-alabei eskainitako denbora / <i>Tiempo dedicado a los hijos e hijas</i>	20
- Familia harremanen aldaketaren beharra / <i>Necesidad de cambio en las relaciones familiares</i>	23
- Seme-alaba kopururik egokiena / <i>Número ideal de hijos e hijas</i>	23
- Seme-alaba gutxiago izateko arrazoiak / <i>Razones para tener menos hijos e hijas</i>	24
- Lana eta familia bateratzeko neurriak / <i>Medidas para la conciliación de la vida laboral y familiar</i>	24
- Lana eta seme-alabak bateratzea / <i>Compaginación de trabajo e hijos/as</i>	25
6 – Lana / <i>Trabajo</i>	27
- Lanarekiko poztasuna / <i>Satisfacción con el trabajo</i>	28
- Lanik egokiena / <i>Trabajo ideal</i>	28
- Ezberdintasun sentazioa lanean / <i>Sensación de desigualdad en el trabajo</i>	30
- Lanaren antolaketan aldekataren beharra / <i>Necesidad de un cambio de organización en el trabajo</i>	32
Zehaztasun teknikoak / <i>Ficha técnica</i>	33

Sarrera / *Introducción*

Helburuak eta informazioaren iturria / *Objetivos y origen de la información*

Ikerketa honen **helburua** hainbat arlotan emakume eta gizonen iritzi eta jarreraren arteko aldeak ezagutzeko da.

Horretarako **1996 eta 2006 artean jasotako datuen bilketa** egin da. Kasu guztietan datuak Euskal Autonomia Erkidegoko 18 urte* eta gehiagoko pertsonak osatutako lagin adierazgarri batzuei etxez etxe egindako inkestetatik datoz.

Inkesta horiek Euskal Soziometroaren bildumarako gauzatu ziren**. Kasu batzuetan hemen agertzen diren galderak zegozkion Soziometroan argitaratu ziren eta beste kasu batzuetan Eusko Jaurlaritzako sailen batek espresuki eskatutako ikerketa zehatzetan argitaratu ziren.

Lan honetan sei arlo ezberdini buruz (zoriontasuna eta bizitzarekiko lehentasunak, erlijioa, sexualitatea, itxura fisikoa, familia eta lana) **gizon eta emakumeek azaldutako iritziak aurkeztu dira irudietan**, eta kasu bakoitzean informazioa batu zen urtea adierazi da. Azalpen labur batzuek lagunduko dute datuak ulertzen.

Txosten hau gizon eta emakumeen iritzien arteko ezberdinatasunak agertzen diren hainbat gairi buruzko datuak urtez urte jasoko dituen **bildumaren lehenengo alea** da.

El **objetivo** de este estudio es conocer las diferencias de actitudes y opiniones entre las mujeres y los hombres en relación a distintos ámbitos.

Para ello se ha realizado una recopilación de **datos recogidos entre 1996 y 2006**. En todos los casos los datos proceden de encuestas realizadas a domicilio a muestras representativas de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco de 18 y más años*.

Estas **encuestas** se realizaron para alimentar la serie de Sociómetros Vascos**. En algunos casos las preguntas que aquí se presentan fueron publicadas en el Sociómetro Vasco correspondiente, y en otros casos se publicaron en monográficos específicos realizados a petición expresa de algún departamento del Gobierno Vasco.

En el presente trabajo se presentan, **mediante una serie de gráficos, las opiniones de hombres y mujeres** en relación a seis ámbitos temáticos distintos (felicidad y prioridades vitales, religión, sexualidad, aspecto físico, familia y trabajo), indicando, en cada caso, el año de recogida de dicha información. Unos breves comentarios ayudarán a la comprensión de los datos.

Este informe pretende ser **el primero de una serie** que, de forma anual, recopile datos sobre temáticas en las que se aprecian diferencias de opinión entre hombres y mujeres.

* Inkesta zehatz baten kasuan adierazitako datuak 15 urte eta gehiagoko biztanleriari dagozkio, baina hori badago espresuki azalduta dagokionean.

** Kasu zehatz batean *Soziologiako Euskal Koadernoak* bildumarako egin zen.

* En el caso de una encuesta concreta los datos que se muestran corresponden a la población de 15 y más años, pero ello ya viene expresamente indicado donde corresponde.

** En un caso concreto fue para la colección *Coadernos Sociológicos Vascos*.

Laburpena / *Síntesis*

ALDERIK NABARMENENAK

Zoriontasuna lortzeko emakumeek gizonak baino garrantzi handiagoa ematen diete osasunari, maitasunari eta familiari eta txikiagoa diruari. Zoriontasunerako oztoporik nagusien artean, emakumeek gizonak baino gehiago aipatu dute bakardadea.

Emakumeek gizonak baino garrantzi handiagoa ematen diete **erlijioari**, fededunago azaltzen dira eta maizago joaten dira mezatarara. Gizonak baino konfiantza handiagoa dute Elizan.

Aitzitik, emakumeek gizonak baino garrantzi txikiagoa ematen diete **sexualitateari**. Sexuari buruz hitz egitekoan, emakumeek gehiago pentsatzen dute maitasunarean eta gutxiago desiran, izan ere, gizonak baino emakume gehiagok uste dute sexu-harremanak izateko beharrezkoa dela bikotekidea maitatzea. Sexuaren inguruko gaietan, emakumeak gizonak baino pozago agertzen dira beren sexu-harremanen maiztasunarekin eta gizonak baino gutxiago kezkatzen dira sexu-harremanen maiztasunaz, inpotentzia/frigidosunaz edota gaixotasunak kutsatzeaz, baina gehiago arduratzen dira nahi gabeko haurduntzeaz.

Irudiari dagokionez, emakumeak gehiago kezkatzen dira beren itxura fisikoaz eta pisuaz, maizago pisatzen dira, neurri gehiago hartzen dituzte pisua mantentzeko edota argaltzeko eta gehiago zaintzen dute beren elikadura.

Familiari buruzko gaietan, emakumeek gizonak baino neurri handiagoan uste dute beraiek eramaten dutela etxeko lanen eta seme-alabak zaintzearen zama eta, izan ere, gizonak baino denbora gehiago ematen dute beren seme-alabekin. Emakumeek gizonak baino gehiago gustatuko litzaieke familia ugaria izatea eta gaur egun seme-alaba gutxiago izateko arrazoiak artean gizonak baino neurri handiagoan aipatzen dituzte familia eta lana bateratzeko dauden arazoak, eta gutxiago beste arrazoi batzuk, hala nola, bizitzaren garestitzea edota erosotasuna eta askatasuna galtzea. Emakumeek gizonak baino gehiago diote askotan aukeratu behar dutela haurrak izatea edo lan egitearen artean, eta familia eta lana bateratzeko konponbideen artean gehiago eskatzen dute ordu gutxiko lana aukeratu ahal izatea.

Emakumeak ez daude gizonak bezain pozik beren **lanarekin**; gizonak baino garrantzi handiagoa ematen diote lan-giroari eta gutxiago soldatari edota lanean mailaz igotzeko aukerak izateari. Oro har, emakumeen artean gizonen artean baino zabalduago daude uste hauek: zailtasun handiagoak dituztela beren prestakuntzari eta esperientziari dagokien lana lortzeko, zailtasun handiagoak gainditu behar dituztela ardurako lanpostuetara iristeko eta langabezia geratzeko arrisku handiagoa dutela.

Oro har, emakumeek gizonak baino gehiago uste dute **ez dagoela berdintasunik** etxeko lanen banaketan, seme-alabak zaintzean ezta lana lortzeko ere. Horrengatik neurri handiagoan adierazten dute gizonen eta emakumeen arteko berdintasunak bai familia harremanetan bai lanaren antolaketan aldaketak eskatzen dituela.

DIFERENCIAS MÁS DESTACADAS

A la hora de buscar la **felicidad**, las mujeres dan mayor importancia que los hombres a la salud, el amor y la familia y menos al dinero. Como obstáculos a la felicidad, las mujeres señalan más que los hombres la soledad.

Las mujeres dan mayor importancia que los hombres a la **religión** y se declaran más creyentes y practicantes que ellos. También confían más que los hombres en la Iglesia.

Sin embargo, las mujeres conceden menor importancia que los hombres a la **sexualidad**. Al hablar de sexo las mujeres piensan más en el amor y menos en el deseo, de hecho, las mujeres creen en mayor medida que los hombres que para mantener relaciones sexuales hay que querer a la pareja. En materia sexual ellas se declaran más satisfechas que ellos con la frecuencia de sus relaciones sexuales y se sienten menos preocupadas que ellos por el número de relaciones sexuales, por la impotencia/frigidez o por la transmisión de enfermedades, pero están más preocupadas por los embarazos indeseados.

En cuanto a la **imagen**, ellas se declaran más preocupadas por su aspecto físico y su peso, dicen pesarse más frecuentemente, toman más medidas para mantenerse o adelgazar y cuidan más su alimentación.

En relación a la **familia**, las mujeres creen en mayor medida que los hombres que ellas llevan la carga de las tareas del hogar y del cuidado de los hijos e hijas y, de hecho, dedican más tiempo que los hombres a estar con sus hijos e hijas. A las mujeres les gustaría más que a los hombres tener familia numerosa y aducen en mayor medida que hoy se tienen menos hijos por los problemas de conciliación de la vida laboral y familiar, siendo más escasas que entre los varones las menciones de otras razones como la carestía de la vida o la pérdida de comodidad y libertad. Las mujeres señalan en mayor medida que los hombres que ellas se ven más obligadas a elegir entre tener hijos o trabajar, y para buscar soluciones a la conciliación de la vida laboral y familiar demandan en mayor medida la posibilidad de trabajar a tiempo parcial.

Las mujeres se declaran algo menos satisfechas con su **trabajo** que los hombres; dan mayor importancia que éstos al clima laboral y menos al sueldo o a las posibilidades de ascenso. En general las mujeres piensan en mayor medida que los hombres que ellas tienen más dificultades para encontrar un trabajo adecuado a su preparación y experiencia, que tienen que superar más dificultades para llegar a puestos de responsabilidad y que tienen mayor riesgo de quedarse en paro.


En general, las mujeres creen en mayor medida que los hombres que **no hay igualdad** en el reparto de las tareas domésticas, en el cuidado de los hijos e hijas ni en el acceso al trabajo. Por ello señalan en mayor medida que la igualdad entre hombres y mujeres exige un cambio tanto en las relaciones familiares, como en la organización del trabajo.

1 – Zoriontasuna eta bizitzarekiko lehentasunak / *Felicidad y prioridades vitales*


- Zoriontasuna lortzeko gauzarik garrantzitsuenak / *Cosas más importantes para conseguir la felicidad*
- Zoriontasunerako oztopo nagusiak / *Principales obstáculos a la felicidad*

Zoriontasuna eta bizitzarekiko lehentasunak / Felicidad y prioridades vitales

Hurrengo zerrendatik zeintzuk dira, zure ustez, zoriontasuna lortzeko bi gauza garrantzitsuenak? /
De la siguiente lista, ¿cuáles son, para Ud., las dos cosas más importantes para conseguir la felicidad? *



Esango dizkizudanen artean, zeintzuk dira, zuretzat, zoriontasuna lortzeko bi oztoporik nagusienak? /
Entre los que le voy a mencionar, ¿cuáles son, según Ud., los dos obstáculos principales para la felicidad? *



Bai gizonentzat baita emakumeentzat ere zoriontasuna lortzeko gauzarik garrantzitsuenak osasuna bada ere, gehiago dira emakumeen artean hori aipatu dutenak, baita maitasuna edo familia aipatu dituztenak ere. Gizonek, aldiz, emakumeek baino dezente gehiago adierazi dute diruaren garrantzia.

Bestalde, gizonak eta emakumeak bat datoz zoriontasunerako oztoporik nagusiena segurtasun materialik eza (hau da, langabezia edota traba ekonomikoak) dela aipatzean; hala ere emakumeek gizonak baino dezente gehiago aipatu dute bakardadearen eragina.

Si bien tanto para hombres como para mujeres, lo más importante para conseguir la felicidad es la salud, són más entre las mujeres quienes la mencionan, así como quienes señalan el amor o la familia. Los hombres, por su parte, señalan en bastante mayor medida que las mujeres la importancia del dinero.


Por otro lado, hombres y mujeres coinciden en señalar que el principal obstáculo a la felicidad es la inseguridad material (es decir, el paro o las dificultades económicas); no obstante las mujeres señalan en bastante mayor medida que los varones la incidencia de la soledad.

2 – Erlijioa / Religión

- Erlijioaren garrantzia / *Importancia de la religión*
- Norberaren definizioa erlijioarekiko / *Autodefinitión religiosa*
- Praktika erlijiosoa / *Práctica religiosa*
- Elizarekiko konfiantza / *Confianza en la Iglesia*

Erlijioa / Religión


Esango didazu, mesedez, nolako garrantzia duen zure bizitzan erlijioak? /
 Dígame, por favor, qué grado de importancia tiene en su vida la religión



Emakumeen erdiek baino apur bat gehiagok uste dute erlijioa oso edo nahikoa garrantzitsua dela beren bizitzan. Ehuneko hori heren bat baino apur bat gehiagora jaisten da gizonen kasuan.

Algo más de la mitad de las mujeres consideran que la religión es muy o bastante importante en su vida. Este porcentaje se reduce a algo más de un tercio en el caso de los hombres.


Erljio gaietan, nola ikusten duzu zure burua? / ¿Cómo se considera en materia religiosa?



Hamar emakumetatik lauk katoliko praktikantetzat jo dute beren burua. Zifra hori dezente murrizten da gizonezkoen kasuan, horien artean emakumeen artean baino katoliko ez praktikante, agnostiko eta ez sinestunen presentzia handiagoa baitago.

Cuatro de cada diez mujeres se definen como católicas practicantes. Esta cifra se reduce considerablemente en el caso de los hombres, y es que entre los hombres hay mayor presencia que entre las mujeres de católicos no practicantes, de agnósticos y de ateos.


Zenbatero joaten zara elizara? / ¿Con qué frecuencia va Ud. a la Iglesia? *



Elizara joateko maiztasuna eskasagoa da gizonezkoen artean, emakumezkoen artean baino.

La frecuencia de asistencia a la Iglesia es inferior entre los hombres que entre las mujeres.

Esadazu, mesedez, Elizan gehienbat konfiantza duzun ala gehienbat konfiantzarik ez duzun? /
Dígame, por favor, si tiende Ud. a confiar o si tiende a no confiar en la Iglesia



Nahiz eta kasu bietan Elizan konfiantza dutenak gutxiengoa izan, emakumezkoek gizonezkoek baino konfiantza handiagoa dute.

Aunque la confianza en la Iglesia es minoritaria en ambos casos, esta confianza es mayor entre las mujeres que entre los hombres.


3 – Sexualitatea / Sexualidad

- Zerekin lotzen da sexualitatea / Con qué se relaciona la sexualidad
- Sexualitatearen garrantzia / Importancia de la sexualidad
- Maitasuna eta sexua / Amor y sexo
- Sexualitateari buruzko kezka / Preocupaciones en torno a la sexualidad
- Harreman sexualen maiztasunarekiko poztasuna / Satisfacción con la frecuencia de relaciones sexuales

Sexualitatea / Sexualidad

SEXU hitza aipatzen badizut, zeintzuk dira burura datozkizun hiru hitzak? * /

*Si le nombro la palabra SEXO, ¿cuáles son las tres palabras, adjetivos o expresiones que le vienen a la mente? **




"Sexu" hitza aipatzerakoan, emakumeei gizonei baino neurri handiagoan datorkie burura maitasuna, eta gizonei emakumei baino gehiago datorkie desira.

Al mencionar la palabra "sexo", las mujeres piensan más que los hombres en el amor, y los hombres piensan más que las mujeres en el deseo.

Gaur egun zure bizitzan, zein paper jokatzen du sexualitateak? /


Hoy en día en su vida la sexualidad es una parte...



Gizonek emakumeek baino garrantzi handiagoa ematen diote beren bizitzan sexualitateari.

Los hombres dan mayor importancia que las mujeres a la sexualidad en su vida.


Sexu-harremanak izateko, zure ustez beharrezkoa da bikotekidea maitatzea? / Para tener una relación sexual, ¿cree Ud. que es necesario querer a la pareja?



Gizon eta emakume gehienek uste dute sexu-harremanak izateko beharrezkoa dela bikotekidea maitatzea; hala ere, ideia hori dezente zabalduago dago emakumeen artean gizonen artean baino.

La mayoría de los hombres y las mujeres creen que para tener relaciones sexuales es necesario querer a la pareja, sin embargo esta idea está bastante más extendida entre las mujeres que entre los hombres.

Zure sexualitatean pentsatzen duzunean, zer da zu zeu gehien kezkatzen zaituena? / Cuando piensa en su sexualidad, ¿qué dos cosas le preocupan más a Ud. personalmente? *



Sexualitateari dagokionean, HIESa da bai gizonak bai emakumeak gehien kezkatzen dituen. Hala ere, badaude alde nabarmenak batzuen eta besteen artean: oro har, gizonak emakumeak baino gehiago kezkatzen dira sexu-harremanen bidez kutsatu daitezkeen gaixotasunez (HIESa edota gaixotasun benereoez), inpotentziak, baita sexu-harreman gutxi izateaz ere. Emakumeak gizonak baino gehiago arduratzen dira nahi gabeko haurduntzaz.


El SIDA es la mayor preocupación de hombres y mujeres en relación a la sexualidad. Sin embargo hay notables diferencias entre unos y otras: en general, a los hombres les preocupan más que a las mujeres las enfermedades que se puedan transmitir en estas relaciones (SIDA o enfermedades venéreas), la impotencia y el bajo número de relaciones sexuales. A ellas, les preocupa más que a los hombres un posible embarazo no deseado.

Gai horren inguruko ezerk ez dituela kezkatzen gehiago diote emakumeek gizonak baino.

También hay más mujeres que hombres que señalan que no les preocupa nada de este tema.

Zu zeu pozik zaude daukazu sexu-harremanen maiztasunarekin? /

¿Ud. personalmente está satisfecho/a con la frecuencia de relaciones sexuales que tiene?



Bost gizonetatik batek nahiko luke sexu-harremanak maizago izatea. Zifra hori dezente murrizten da emakumeen kasuan.

Edozein kasutan, galdera hori erantzun dutenen kopurua handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino.

Uno de cada cinco hombres desearía tener relaciones sexuales más frecuentemente, cifra que se reduce notablemente en el caso de las mujeres.


En cualquier caso, el índice de respuesta a esta pregunta es superior en los hombres que en las mujeres.

4 – Itxura fisikoa / *Aspecto físico*


- Itxura fisikoari eta pisuari buruzko ardura / *Preocupación por el aspecto físico y el peso*
- Norbera pisatzeko maiztasuna / *Frecuencia de pesarse*
- Pisua zaintzea / *Control del peso*
- Jateko ohiturak / *Costumbres alimenticias*

Itxura fisikoa / Aspecto físico


Zein neurritan zaude kezkatuta zure itxura fisikoagatik? /
¿En qué grado está Ud. preocupado/a por su aspecto físico?



Zein neurritan zaude kezkatuta zure pisuagatik? / ¿En qué grado está Ud. preocupado/a por su peso?




Esango didazu zenbatero pisatzen zaren? / ¿Me podría decir con qué frecuencia se pesa Ud.?




Emakumeak gizonak baino gehiago kezkatzen dira beren itxura fisikoagatik eta beren pisuagatik. Izan ere, emakumeak gizonak baino maizago pisatzen dira.

Las mujeres se declaran más preocupadas por su aspecto físico y por su peso que los hombres. De hecho, las mujeres se pesan más frecuentemente que los hombres.

Argaltzeko, mantentzeko edo loditzeko ezer egiten duzu ala berdin zaizkizu gauza hauek? / ¿Hace algo para adelgazar, mantenerse o engordar, o bien le da igual?



Janariari dagokionez, ondokoien artean zein da zure ohitura? / En relación a la comida, ¿de las siguientes cuál es su costumbre?



Emakumeek gizonek baino neurri handiagoan diete zerbait egiten dutela argaltzeko edota pisua mantentzeko. Horrela, gehiago dira dieta jarraitzen duten emakumeak, edota, behintzat janari edo edari batzuk ez hartzen saiatzen direnak.


Hay más mujeres que hombres que toman alguna medida para adelgazar o para mantenerse en el peso. Así, son más las mujeres que hacen dieta o, al menos, evitan comer y beber ciertas cosas.

5 – Familia / Familia


- Etxeko lanen banaketa / Reparto de tareas en el hogar
- Seme-alabei eskainitako denbora / Tiempo dedicado a los hijos e hijas
- Familia harremanen aldaketaren beharra / Necesidad de cambio en las relaciones familiares
- Seme-alaba kopururik egokiena / Número ideal de hijos e hijas
- Seme-alaba gutxiago izateko arrazoiak / Razones para tener menos hijos e hijas
- Lana eta seme-alabak bateratzea / Compaginación de trabajo e hijos/as
- Lana eta familia bateratzeko neurriak / Medidas para la conciliación de la vida laboral y familiar

Familia / Familia

Pentsa ezazu etxean egin beharreko lanetan, esate baterako, erosketak, otordu eta garbiketak. Lan horiek zenbateraino banatzen dituzu zure senar/emazte/bikotekidearekin? / Piense Ud. en las labores necesarias en el hogar, tales como comprar, cocinar o limpiar, ¿en qué medida las comparte con su marido/mujer/pareja? *



Nork ematen du denbora libre gehiago seme-alabekin? / ¿Quién comparte más tiempo libre con los/as hijos/as? *




Gizonek emakumeek baino gehiago uste dute etxeko lanak erdibana banatzen dituztela. Emakumeek gizonek baino neurri handiagoan diote beraiek egiten dituztela lan horiek.

Seme-alabekin emandako denbora libreari dagokionez ere pertzepzio ezberdina dute emakumeek eta gizonek: emakumeen ustez beraiek ematen dute denbora gehiago seme-alabekin; gizonek (nahiz eta emakumeek beraiek baino denbora gehiago ematen dutela aitortu) gehienbat uste dute emakumeek beste denbora ematen dutela.

Los hombres tienen mayor sensación que las mujeres de que las tareas del hogar están repartidas a medias. Las mujeres creen en mayor medida que los hombres que son ellas quienes realizan dichas tareas.

También en el tiempo libre dedicado a los hijos e hijas se aprecia una diferencia de perspectiva entre mujeres y hombres: mientras las mujeres creen principalmente que son ellas quienes dedican más tiempo, los hombres (pese a reconocer que ellas dedican más tiempo que ellos) creen principalmente que ese tiempo está repartido a partes iguales.


Orain seme-alabekin pasatzen duzun denboraz hitz egingo dugu. Jarraian datozen gauza bakoitzetik zenbatero egiten dituzu zure seme edo alabetako batekin behintzat? / Vamos a hablar ahora del tiempo que Ud. comparte con sus hijos/as. ¿Con qué frecuencia suele Ud. hacer cada una de las siguientes actividades con sus hijos/as, aunque sea con uno/a sólo de ellos/as? *



Proposatutako eguneroko ekintzetan emakumeek emandako denbora gizonak emandakoa baino gehiago da (hau da, beren seme-alabekin ekintza horiek egunero edo ia egunero egiten dituzten emakumeak hori bera egiten duten gizonak baino gehiago dira).

El tiempo empleado por las mujeres en las distintas actividades cotidianas propuestas supera al empleado por los hombres (es decir, el número de mujeres que realizan diariamente o casi diariamente con sus hijos e hijas dichas actividades supera al de los hombres que también lo hacen).


Orain seme-alabekin pasatzen duzun denboraz hitz egingo dugu. Jarraian datozen gauza bakoitzetik zenbatero egiten dituzu zure seme edo alabetako batekin behintzat? / Vamos a hablar ahora del tiempo que Ud. comparte con sus hijos/as. ¿Con qué frecuencia suele Ud. hacer cada una de las siguientes actividades con sus hijos/as, aunque sea con uno/a sólo de ellos/as? *



Beren seme-alabekin proposatutako aisialdiko ekintzak egunero edo ia egunero egiten dituzten emakumeak hori bera egiten duten gizonak baino gehiago dira.

Son más las mujeres que realizan a diario o casi a diario las distintas actividades lúdicas propuestas que los hombres que también lo hacen.


Esadazu, mesedez, oso ados, ados, kontra edo oso kontra zauden ondoko iritziarekin: "Gizon eta emakumeen arteko berdintasunak familia harremanen aldaketa eskatzen du" / Dígame, por favor, si está Ud. muy de acuerdo, de acuerdo, en desacuerdo o muy en desacuerdo con la siguiente opinión: "La igualdad entre hombres y mujeres exige un cambio en las relaciones familiares". *



Bai gizonen artean bai emakumeen artean gehiengo osatzen dute gizon eta emakumeen arteko berdintasunak familia harremanen aldaketa eskatzen duela uste dutenek; hala ere, ideia hori apur bat zabalduago dago emakumeen artean gizonen artean baino.

Tanto entre los hombres como entre las mujeres son mayoría quienes consideran que para alcanzar la igualdad de hombres y mujeres es necesario un cambio en las relaciones familiares, pero esta idea está algo más extendida entre las mujeres que entre los hombres.


Zein da, zure ustez, seme-alaben kopururik egokiena, kopuru egokirik badago? / ¿Cuál cree que es el número ideal de hijos e hijas, si es que lo hay?



Emakumeek gizonen baino apur bat gehiago nahiko lukete familia ugariak izan.

A las mujeres les gustaría algo más que a los hombres tener familias numerosas.


Zure ustez, zeintzuk dira bi arrazoirik nagusienak gaurko gurasoek nahiko luketen seme-alaba kopurua ez izateko? / ¿Cuáles cree que son las dos razones principales por las que los padres y madres de hoy no tienen el número deseado de hijos e hijas? *



Nahi dituztenak baino seme-alaba gutxiago izateko arrazoiaren artean, gizonek emakumeek baino neurri handiagoan aipatzen dituzte hazkuntzaren garestitzea eta erosotasuna, lasaitasuna eta askatasuna galtzea; emakumeek, aldiz (nahiz eta gehienbat arazo ekonomikoak aipatu) gizonek baino gehiago aipatzen dituzte familia eta lana bateratzeko arazoak.

Entre las razones para tener menos hijos e hijas de los deseados, los hombres mencionan más que las mujeres la carestía de su crianza y la pérdida de comodidad, tranquilidad y libertad, mientras que las mujeres (si bien señalan más el tema económico) mencionan más que los hombres el problema de la conciliación laboral y familiar.


Lanari dagozkion ondoko neurrien artean, zeintzuk dira zure ustez jaiotze-tasa handitzeko bi egokienak? / De las siguientes medidas de tipo laboral, ¿cuáles cree que son las dos más adecuadas para fomentar la natalidad? *




Lana eta familia bateratzeko neurrien artean, bai gizonek bai emakumeek garrantzi handiena lanean ordutegi malguak izateari ematen diote. Batzuen eta besteen arteko alderik handiena honetan datza: emakumeek garrantzi handiagoa ematen diotela ordu gutxiko lana aukeratu ahal izateari.

Entre posibles medidas de conciliación de la vida laboral y familiar, tanto hombres como mujeres priman la flexibilidad horaria en el trabajo. La mayor diferencia entre unos y otros reside en la mayor importancia concedida por las mujeres a la posibilidad de elegir un trabajo a tiempo parcial.

Gaur egungo emakumeen errealitatea bi esaldi hauetako zeinek deskribatzen du hobekien? / ¿Cuál de las siguientes frases describe mejor la realidad actual de las mujeres? *



Gaur egungo gizonen errealitatea bi esaldi hauetako zeinek deskribatzen du hobekien? / ¿Cuál de las siguientes frases describe mejor la realidad actual de los hombres? *



Gizonak eta emakumeak bat datoz ondoko usteetan: gizonek arazo handirik gabe bateratu ahal dituztela lana eta umeak izatea eta, aldiz, emakumeek askotan aukeratu behar dutela gauza bien artean. Dena dela, nahiz eta gizon eta emakume gehienek horrela pentsatu, emakumeek neurri handiagoan uste dute errealitatea horrelakoa dela.

Hombres y mujeres comparten la idea de que los hombres pueden compaginar sin problemas trabajar y tener hijos, mientras que las mujeres muchas veces se ven obligadas a elegir entre una cosa y otra. Pese a que la mayoría de hombres y mujeres piensan así, las mujeres creen en mayor medida que los hombres que realmente se dan estas situaciones.


6 – Lana / Trabajo

- Lanarekiko poztasuna / *Satisfacción con el trabajo*
- Lanik egokiena / *Trabajo ideal*
- Ezberdintasun sentrazioa lanean / *Sensación de desigualdad en el trabajo*
- Lanaren antolaketan aldekataren beharra / *Necesidad de un cambio de organización en el trabajo*

Lana / Trabajo

Esango al didazu gaur egun gustura zauden ala ez zure lana, lanbidearekin? /

Dígame si se siente hoy por hoy más bien satisfecho/a o más bien insatisfecho/a con su trabajo o profesión




Gizon eta emakume gehienek gustura daudela beren lanekin adierazi dute; hala ere, gizonak emakumeak baino apur bat pozago agertu dira.


La mayoría de los hombres y mujeres se declaran satisfechos con su trabajo, si bien los hombres están algo más satisfechos que las mujeres.

Zure iritziz, hauetatik zein bi ezaugarri eduki behar izango lituzke lan ezin hobekak? /

En su opinión, ¿qué dos características de las que le muestro a continuación debería tener el trabajo ideal? *



Lanari begira, hauetatik zein interesatzen zaizu gehien? /
En el trabajo, ¿qué es lo que más le interesa de estas dos cosas




Bai gizonek bai emakumeek garrantzirik handiena lan egonkortasunari ematen badiote ere, emakumeen ustez garrantzi handiagoa du lan-giroak soldatak baino, eta gizonen ustez alderantziz, garrantzi handiagoa du soldatak lan-giroak baino.

Mailaz igotzeko aukeren eta gustuko lankideen artean aukeratu behar izanez gero, gizon eta emakume gehienek nahiago dute gustuko lankideak izatea; hala ere, gizonen artean emakumeen artean baino gehiagok diote nahiago luketela mailaz igotzeko aukera izatea.

Aunque tanto hombres como mujeres dan mayor importancia a la estabilidad laboral, las mujeres consideran más importante el ambiente laboral que el sueldo, y los hombres, en cambio, lo contrario: dan mayor importancia al sueldo que al ambiente en el trabajo.

Dados a elegir entre las posibilidades de ascenso y que las y los compañeros de trabajo sean de su agrado, la mayoría de hombres y mujeres se decantan por trabajar con gente que les guste, si bien son más entre los hombres que entre las mujeres quienes preferirían tener posibilidades de ascenso laboral.


Esadazu, mesedez, ondoko baieztapen hauetako bakoitzarekin oso ados, ados, ez ados ez kontra, kontra edo oso kontra zauden / Dígame, por favor, si está Ud. muy de acuerdo, de acuerdo, ni de acuerdo ni en desacuerdo, en desacuerdo o muy en desacuerdo con cada una de las siguientes afirmaciones *



Nahiz eta gizon gehienek ere horrela pentsatu, emakumeen artean zabalduago daude ondoko usteak: zailtasun gehiago dituztela beraien ikasketa eta prestakuntza mailari dagokion lana aurkitzeko, zailtasun gehiago gainditu behar dituztela goi-mailako lanpostuetara iristeko eta langabezian gelditzeko arrisku handiagoa dutela.

Aunque también son mayoría los hombres que piensan así, son más las mujeres que creen que ellas tienen más dificultades para encontrar un trabajo acorde a su nivel educativo y de preparación, que tienen que superar más dificultades para alcanzar puestos de responsabilidad y que tienen más riesgo de quedarse en paro.

Zure ikasketa eta prestakuntzari dagokion lan baterako hautaketa prozesu batean bazeunde, eta zure adin, prestakuntza eta esperientzia berbera dituen lehiakidea gizona/emakumea balitz, uste duzu lanpostua lortzeko berak aukera handiagoak dituela gizona/emakumea delako, zuk aukera handiagoak dituzula emakumea/gizona zarelako, edo emakumea ala gizona izateak ez duela inolako eraginik? / Imagine que está Ud. en un proceso de selección para un puesto de trabajo adecuado a sus estudios y preparación, que su competidor es un hombre / una mujer de su misma edad, preparación y experiencia. ¿Cree Ud. que él/ella tiene más oportunidades de lograr el puesto porque es hombre/mujer, que Ud. tiene más oportunidades porque es mujer/hombre o que el hecho de ser hombre o mujer no influye en absoluto? *




Bai gizonek bai emakumeek uste dute gizonek emakumeek baino aukera gehiago dituztela lanpostu bat lortzeko, biek prestakuntza eta esperientzia berbera badute ere.

Iritzi hori are zabaldago dago emakumeen artean gizonen artean baino.

Tanto hombres como mujeres comparten la opinión de que ellos tienen más oportunidades que ellas de conseguir un puesto de trabajo, aún teniendo la misma preparación y experiencia.

Esta opinión está aún más extendida entre las mujeres que entre los hombres.

Esadazu, mesedez, oso ados, ados, kontra edo oso kontra zauden ondoko iritziarekin: "Gizon eta emakumeen arteko berdintasunak lanaren antolaketan aldaketa eskatzen du" / *Dígame, por favor, si está Ud. muy de acuerdo, de acuerdo, en desacuerdo o muy en desacuerdo con la siguiente opinión: "La igualdad entre hombres y mujeres exige un cambio en la organización del trabajo". **



Bai gizonen artean bai emakumeen artean gehiengoa osatzen dute gizon eta emakumeen arteko berdintasunak lanaren antolaketan aldaketa eskatzen duela uste dutenek; hala ere, ideia hori apur bat zabalduago dago emakumeen artean gizonen artean baino.

Tanto entre los hombres como entre las mujeres son mayoría quienes consideran que para alcanzar la igualdad de hombres y mujeres es necesario un cambio en la organización del trabajo, pero esta idea está algo más extendida entre las mujeres que entre los hombres.

Zehaztasun teknikoak / *Ficha técnica*

Txosten honetan aurkezten den **informazioaren bilketa** ikerketa ezberdinetan burutu zen **1996 eta 2006 bitartean**.

Kasu guztietan galdesorta egituratu eta itxia erabiliz gauzatu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetarako lagin adierazgarri batzuei **etxean egindako banakako elkarrizketen bidez**.

Gizabanakoen **hautaketa** prozedura polietapiko eta estratifikatuaren bidez egin zen, ausazko ibilbideak erabiliz¹, ondoren pertsonak sexuaren, adinaren eta lan egoeraren arabera kuoten bidez aukeratuz. Emaizak hiru lurraldeetako biztanleria zentsuaren eta azken Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako boto oroimenaren arabera haztatu ziren.

Kasu guztietan inkesten kalitatea **kontrolatu** egin zen: hasieran landa lana egin zuen enpresak berak telefono bidez edota etxean bertan kontrolatu zituen inkestak eta, horrez gain, bai enpresak, bai Prospekzio Soziologikoen Kabineteak jasotako galdetegi guztietan kontrol informatiko egokiak –logika, koherentzia eta heinari buruzkoak– egin zituzten.

Gainera, datuen **fidagarritasuna eta baliotasuna** bermatua dago, bai Euskal Autonomia Erkidegoko, baita lurralde bakoitzerako ere, lagin adierazgarri egokiak erabiliz eta inkesten azken emaitzen eta argitaratutako beste kanpo erreferentzia objektibo batzuen arteko desberdintasunen ebaluazioa eginez, azken hau beti ere, datu alderagarriak dauden kasuetan. Zehatzago, ondoko aldagaiei buruz ari gara: batetik azken Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako botoaren banaketa erreala eta bestetik adina, sexua, ikasketa maila, lan egoera eta euskararen ezagutza mailari buruzko datu ofizialak.

Ikerketa honen **diseinua**, emaitzen **azterketa eta txostenaren idazketa** Prospekzio Soziologikoen Kabineteari dagozkio erabat.

La **recogida de la información** que se presenta en este informe se realizó en distintos estudios **entre 1996 y 2006**.

En todos los casos se llevó a cabo a través de **entrevista individual** mediante cuestionario estructurado y cerrado, realizada **a domicilio** a muestras representativas de la población de cada uno de los Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La **selección** de las personas a entrevistar se realizó por procedimiento polietápico y estratificado, siguiendo rutas aleatorias¹ y con selección de los individuos por cuotas de sexo, edad y situación laboral, siendo posteriormente ponderados los resultados en base a la población y al recuerdo de voto en las últimas elecciones al Parlamento Vasco, en cada uno de los tres Territorios.

En todos los casos se llevaron a cabo **controles** de calidad de las encuestas: en primer lugar, controles telefónicos y domiciliarios por parte de la empresa que realizó el trabajo de campo correspondiente y, posteriormente, todos los controles informáticos pertinentes –lógicos, de coherencia y de rango– en cada uno de los cuestionarios recogidos, tanto por parte de la empresa como del propio Gabinete de Prospección Sociológica.

Además, la **fiabilidad y validez** de estos datos queda garantizada en base al empleo de muestras adecuadamente representativas, tanto para el conjunto de la Comunidad Autónoma del País Vasco como para cada uno de los tres Territorios Históricos, así como mediante la evaluación de las diferencias entre los resultados finales de las encuestas con otras referencias externas objetivas publicadas, siempre que han existido datos contrastables (se trata, concretamente, de la distribución oficial real de voto en las últimas elecciones al Parlamento Vasco y de las cifras oficiales de edad, sexo, nivel de estudios, situación laboral y nivel de euskaldunización).

El **diseño** de esta investigación, el **análisis** de los resultados y la **redacción del informe** es responsabilidad exclusiva del Gabinete de Prospección Sociológica.

¹ Hasiera puntu fisiko zehatza ausaz lortu zen hauteskunde sekzio bakoitzeko kale "zati" multzoen artean (azterketarako unitate geografiko txikiena), Eustatek egindako kale izendegien arabera.

¹ El lugar físico concreto de inicio se obtuvo aleatoriamente del conjunto de "tramos" de calles incluidos en cada sección electoral (unidad geográfica mínima de análisis), según los callejeros elaborados por el Eustat.

